

EGOERAREN AZTERKETA 145

EGOERA EKONOMIKO ETA SOZIALARI BURUZKO TXOSTENA

**Ordena geopolitiko berria,
krisi ekonomikoa inflazioari aurre egiteko
eta langile-klasearen pobretzea**



DATU ESANGURATSUENAK

Interes tipoen igoera politikaren helburuak




Desazelerazio ekonomikoa

Nazioarteko Diru Funtza

Munduko ekonomiaren aurreikuspenak eguneratzeko txostena (2023ko uztaila)

"Inflazioari aurre egiteko banku zentralen moneta-politikako interes-tasen igoerak jarduera ekonomikoa oztopatzen jarraitzen du"

Ekonomia aurreratuen
BPGren hazkundeak



Langabezia



Langile-klasearen diziplinatzea

Christine Lagarde - EBZko presidentea

"Langabezia baxuak egoera indartsuagoan jarri ditu langileak benetako soldata-galerak berreskuratzeko". Langileek negoziatzeko ahalmen handiagoa dutenean, inflazioa handitzeak soldaten igoera ekar dezake, egunean jartzeko, eta horrek inflazio-prozesu iraunkorra eragin dezake".

Bizitzaren garestitzea

Oinarrizko saskia
garestitu egin da



+%25,72
azken bi urteetan

Batez-besteko
hipoteka



+3.000€
garestitu da urtean

Familien aurrezkiak
agortzen ari dira



25% > 12%


Errentaren banaketa gero eta desberdinagoa

Bankuen
mozkinak



+%22
lehen sei hilekoan

Ongizatearen galera pairatzen
duten pertsonak EAEn



+%13,6
2020 eta 2022 artean

Aurkibidea

1. Sarrera	4
2. Mundu multipolar baterantz.....	4
3. Adierazle makroekonomikoen analisia	9
Mundua	9
Europa	10
Espainiar Estatua - Hego Euskal Herria	11
EAE	11
Nafarroa	12
4. EBZ: atzeraldi ekonomikoa inflazioari aurre egiteko.....	12
5. Bizitza gero eta garestiagoa	14
6. Soldatek eros-ahalmena galtzen jarraitzen dute.....	17
7. Familien aurrezkiak agortzen ari dira.....	18
8. Enpresek marjinak handitzen jarraitzen dute	19
9. Enplegua gora, prekarietatea ere bai	21
10. Austeritatea bueltan da arau fiskalekin	24
PUNTAKO GAIA: Pobrezia ez da desagertzen.....	26

1. Sarrera

lazko udazkeneko alean ohartarazi genuen zenbait erakunde eta analisten aurreikuspenak oso negatiboak zirela zetozen hilabeteetarako. Ziurgabetasuna zen ekonomialarien azterketen ondorio nagusia. Hala ere, aurreikuspen katastrofista horiek guztiak ez ziren iritsi, baina egia da ekonomia moteldu egin zela eta KPIa duela hamarkada batzuetatik ikusi gabeko kotetara iritsi zela.

Ikasturte honetan badirudi beste egoera batean gaudela. Hala ere, adierazle batzuek ziurgabetasuna iragartzen dute, baita ere badaude datozen hilabete edo urteetan krisi berriak egon daitezkeela ohartarazten duten erakundeak ere. Ziurtasun gehiago egon arren, ziurgabetasun ekonomiko hori oraindik ez da amaitu.

Tentsio geopolitikoak, konpondu beharrean, areagotu egin dira, eta mundu-blokeen arteko banaketa gero eta sakonagoa da. Txina buru duten ekonomia emergenteek orain arte Estatu Batuen esku zegoen botere hegemonikoaren posizioari aurre egin nahi diote. Oraindik egoera horretan ez gauden arren, badirudi mundu multipolar baterantz mugitzen ari garela, eta horrek ondorio izugarriak izan ditzake delako ekonomia aurreratuenetan. Gai horiek txostenaren bigarren puntuan jorratuko dira.

Egoera ekonomikoari dagokionez, esan bezala, badira ziurgabetasuna sortzen duten elementu batzuk: inflazioak gora egin du berriro, EBZk interes tipoak igo ditu berriro, BPGk dezelerazio zantzu argiak ematen ditu, aurrezkia bukatu efin da jada. Ahultze seinale horiek gorabehera, ekonomiak, oraingoz, uste baino hobeto erantzun du.

Langileentzako arazo nagusia bizitzaren kostuaren garestitzea da, eta horrek dakarren pobretze-prozesua. Prezioen gorakadak, batez ere elikagaienak eta etxebizitzarenak, gero eta sufrimendu handiagoa eragin die langileei eta, bereziki, errenta baxuenei. Gainera, aipatu behar da, soldata errealek pandemia aurreko mailaren azpitik daudela. Hori guztia, ahaztu gabe enpresen etekinak inflazioari laguntzen jarraitu dutenak direla, eta sektore batzuk, hala nola energia eta bankuak, langile klasearen kontura aberasten ari direla.

Egoeraren Azterketaren 145. zenbaki berri honetan, gai horiei guztiei modu analitikoan helduko diegu. Gainera, hileko gai gisa, Eusko Jaurlaritzak pobrezia eta EAEn ongizaterik ezeko egoeran dauden pertsonen buruz argitaratu berri dituen datuen azterketa txiki bat egin dugu.

2. Mundu multipolar baterantz

Globalizazioaren eta liberalismoaren urrezko garaia amaitu da. Hala ohartarazi genuen aurreko Egoeraren Azterketan, eta azken hilabeteetan joera hori sendotzen ari dela ikus daiteke. Munduak hainbat mehatxuri egin behar die aurre, eta horrek ziurgabetasun handia sortzen du epe ertain eta luzerako etorkizunaren gainean, eta zalantzan jartzen du egungo sistemaren iraunkortasuna. Aldaketa klimatikoa da nagusia. Historiako udarik beroena izan denaren aurrean, Nazio Batuen Erakundea (NBE) bezalako erakundeek, G20ren New Delhiko goi-bileraren aurretik, ohartarazi dute “ezin dela horrela jarraitu”, eta akordiorik eta benetako borondate politikorik ez badago, mundu osoko arazoek “hondamendia” ekar dezaketela. Energia fosilen amaiera eta fronte guztietan (ekoizpena, kontsumoa, etab.) askoz gehiago egitea dira erakunde horren errezetak.

Era berean, Intermon Oxfamek G20ko herrialdeei leporatu die berotegi-efektuko gasak murrizteko politiketan porrot egiten ari direla, herrialde horiek bakarrik isurtzen baitute gas horien ia %80. Aldi berean, planetaren baliabideak agortzen ari dira eta ez dira neurri sakonak hartzen ari benetako trantsizio ekosozial baterako.

Beste mehatxu bat, aurrekoarekin lotuta, eskaintzarena da. Konfinamenduek eta hornidura-kate globaletako arazoek, Ukrainako gerrak eta gero eta ohikoagoak diren hondamendi naturalek shockak eragin dituzte eskaintzan, eta horrek inflazioa gorantz bultzatu du. Eta horixe da aurrean dugun beste arazoetako bat. Inflazioa arazo globala da, eta banku zentralak hura murrizteko hartzen ari diren neurriek (interes-tasen igoera) atzeraldi ekonomikoa dakarte, aurrerago ikusiko dugun bezala.

Mehatxu horiei errentagarritasun-krisiari dagozkionak gehitu behar zaizkie, kapitala espekulazio-esparruan inbertitzera bideratzen ari baita (errentagarritasun handiagoarekin eta epe txikiagoan). Enpresek dibidenduak ordaintzera edo akzioak erostera bideratzen dituzte irabaziak, produkzioan inbertitu beharrean. Horren ondorioz, produktibitatea moteldu egin da, eta horrek, aldi berean, gero eta hazkunde ekonomiko txikiagoa eragiten du.

Mehatxu horiek guztiek zalantza handia sortzen dute etorkizunari dagokionez, are gehiago, aurreko Egoeraren Azterketan ikusi genuen bezala, mundua aldatzen ari denean AEB buru zuen unipolarismo hegemonikotik eszenatoki berri batera, non beste eragile batzuek ere protagonismo handiagoa lortu nahi duten. Zentzu horretan, 2023 BRICS taldea (Brasilek, Errusiak, Indiak, Txinak eta Hegoafrikak osatua) finkatu den urtea izan liteke. Izan ere, abuztuaren 22 eta 24 artean goi-bilera bat egin dute, eta, bertan, beren ibilbide-orria ezarri dute, horrez gain, sei herrialde berri sartu dituzte beren proiektua funtsezko eremu geopolitikoetan sendotzeko. Iran, Saudi Arabia, Arabiar Emirerri Batuak, Argentina, Egipto eta Etiopia dira. Horrela, Ekialde Ertaineko hiru energia-ekoizle nagusiekin harreman komertzialak finkatu dituzte, Afrikan duten eragin-ahalmena handitu dute eta Hego Amerikan pisuzko beste ekonomia batean sartu dira.

Gogoratu behar da, herrialde hauek sartu aurretik, BRICSen BPG metatuak, erosteko ahalmenaren parekotasunean, lehen aldiz gainditu zuela G7arena (Alemania, Kanada, Estatu Batuak, Frantzia, Italia, Japonia eta Erresuma Batua). Eta sartu berriekin petrolioaren ekoizpenaren ia erdia eta gasaren herena kontrolatuko lukete. Talde honetan sartzeko interesa duten beste herrialde batzuk gehitzen badizkiogu, hala nola Algeria, Bolivia edo Venezuela, petrolioaren ekoizpenaren bi heren eta gasaren ekoizpenaren erdia bere esku egongo lirateke.

Txina buru duen estrategia honek orain arte mendebaldeak ezarritako nagusitasunari alternatiba bat bilatu nahi dio, nazioarteko merkataritzan ondorio handiak izan ditzakeena. Besteak beste, dolarrak nazioarteko merkataritzako moneta gisa duen domeinuari aurre egin nahi diotelako. Gainera, aliantza hau azpiegitura handiak garatzen ari da, adibidez, Zetaren Ibilbide berria, itsasoz zein lehorrez merkataritza erraztuko dutenak.

BRICSek influentzia handiagoa izan arren, oraindik G7ren nagusitasunarekin haustetikurrundau da. Hasteko, lehenengoan heterogeneotasunagatik (BPGren pisu desberdina, herrialdeen tamaina, kide batzuen arteko lehia, merkataritza-lotura desorekatuak...) bigarrenen homogeneotasunarekiko, non AEB den buru eta erabakitzen duena. Dolarren nagusitasunari dagokionez, azpimarratzekoa da nazioarteko merkataritzaren erdia dolarretan egiten dela eta munduko erreserben %60 dolarretan daudela (yuanaren %3aren aldean). Txinak berak erreserba ugari ditu dolarretan, nahiz eta azken urteotan horiek murrizten saiatzen ari den (bere erreserben %79tik %58ra).

Argi geratzen dena da taula geopolitikoa aldatzen ari dela eta multipolarismoa indarra hartzen ari dela. AEBn nagusitasuna murrizten ari da Txinaren eraginez, eta egungo egoeran bi herrialde horiek dira botere-polo nagusia osatzen dutenak.

Asiako erraldoiari dagokionez, Evergrandeko porrotak 2021ean eragindako higiezinaren kolapsoari sektoreko beste enpresa handi baten, Country Gardenen, burtsan izandako beherakada gehitu behar zaio. Sektoreak BPGren %15 inguruko pisua du, eta eragin esanguratsua beste sektore batzuetan, horrek ziurgabetasun handia sortzen du hazkunde ekonomikoaren aurreikuspenetan. Hala ere, Txinako Estatua krisi horri aurre egiten saiatzen ari da, higiezinaren inbertsioa sustatzeko, sustatzaileen likidezia errazteko eta mailegu-emaitzen eta erosleen arteko bitartekaritza saihesteko aurrekontu-neurrien bidez. Aldi berean, bere modernizazio-prozesuarekin eta garapen-eredu berri batekin jarraitzen du, non faktore soziala, ingurumenekoa eta teknologikoa (5G, adimen artifiziala) erabakigarriak izaten hasi diren. Eredu horretan, barne-merkatuak protagonismo handiagoa izango du, eta, beraz, soldaten igoeraren aldeko apustua egiten ari da, nahiz eta oraindik

G7

AEB, Kanada, Alemania, Frantzia, Italia, Erresuma Batua eta Japonia (Europar Batasuna de facto kidea)

BPG globalaren

29,9%

Munduko merkataritzaren


50%a

dolarretan egiten da

Munduko erreserba guztien

60%a

dolarretan daude



urrun egon mendebaldeko herrialde garatuenetako mailetatik.

Modernizazio-prozesu hori gorabehera, oraindik urrun dago AEBekin teknologikoki lehiatzetik. Joe Bidenek Donald Trumpen America Firsteko bidea jarraitu du, iazko Inflazioa Murrizteko Legea bezalako neurriekin, herrialdeko industria enpresei dirulaguntza handiak emanez eta Europatik beste enpresa asko erakarriz edota industriadako eta klima aldaketarako pizgarri publikoekin. Estatuaren protekzionismoa eta esku-hartzea nagusitzen ari dira politika ekonomikoa garatzeko modu gisa. Hala ere, AEBk ere proiektu handiak ditu Txinako Zetaren Ibilbide berriari aurre egiteko. Irailean egindako G20ko goi-bilerarekin batera, bi megaproiektu aurkeztu ditu Europar Batasunarekin eta BRICSeko kide diren herrialde batzuekin batera, hala nola India, Saudi Arabia edo Arabiar Emirerri Batuak. India-Mendebaldea-Europa Korridore Ekonomikoa eta Transafrikar Korridorea dira, Txinatar proiektuari aurre egiteko estrategia argiak.

BRICS

Brasil, Errusia, India, Txina, eta Hegoafrika. 2024an Argentina, Egipto, Iran, Arabiar Emirerri Batuak, Saudi Arabia eta Etiopia sartuko dira

BPG globalaren

31,6%

Petroleo ekoizpenaren


50%a

haien kontrolpean

Gasaren ekoizpenaren

1/3

haien esku



Bien bitartean, aurreko Egoeraren Azterketan esan genuen bezala, Europa aspaldi geratu zen atzean, bai eragiteko ahalmenean, bai industria- eta teknologia-mailan, eta AEBk agindutakoaren atzetik jarraitzen du. Ukrainako gerrak kontinente zaharreko hazkundera oztopatzen jarraitzen du. Errusiatik datorren energia inportatzeko debekuak Europako motor nagusiari, Alemaniari, kalte egin dio. Azpimarratu behar da Errusiaren energia merkearen kontura ekoizten zuela Alemaniak. Gogoratu dezagun industriak pisu handia duela eta energia kontsumo oso intentsiboa. Alemania nabarmentzen da bere egoerak EBko gainerako herrialdeetan dituen inplikazioengatik; izan ere, belatz izeneko herrialdeak (Alemania buru) kapitalaren jabe ziren Europa eraiki zuten, eta hegoaldeko herrialdeak balio erantsi txikiagoko sektoreetara bideratu ziren, hala nola zerbitzuetara eta turismora.

Industria Alemanian bere BPGren bosten bat da (2022ko uztailetik 2023ra %17 jaitsi den arren), Autogintza da gehien nabarmentzen den sektorea eta Txina bere lehiakide nagusia bilakatzen ari da. Izan ere, Txinako auto elektrikoaren erosketak 2019an %0,5 izatetik 2022an %8 izatera igaro da Europan.

Beste herrialde nagusietako bat ere, Frantzia, eragin-ahalmena galtzen ari da, batez ere Sahelen izaten ari diren gatazkengatik. Nigerren berriki izandako estatu-kolpeak eta Malin edo Burkina Fason izandakoek agerian uzten dute Frantziak boterea galdu duela Afrika iparraldean. Horrela, arriskuan dago aurretik zuten harreman postkoloniala, herrialde horietako biztanleriaren miseria-aren kontura uranioa bezain garrantzitsuak ziren lehengaien espoliazioa ahalbidetzen zuena.

Europak bizi duen egoerari buruz hitz egin zuen irailaren erdialdean Ursula Von der Leyenek Batasunaren egoerari buruzko hitzaldian. Automobilgintza elektrikoaren sektorea zentrala da EB garatzen ari den politiketan (Itun Berdea edo NGEU funtsak), eta adierazi du Txina politika desleiala egiten ari dela eta horri buruzko neurriak hartuko direla. Europako buruzagiaren arabera, Txinak sektore horri emandako laguntza publiko handiek eta esportaziorako ezartzen dituen muga-zerge txikiek Txinako auto elektrikoak Europakoak baino askoz merkeagoak izatea ahalbidetzen dute. Gainera, ikasturte honetarako lehentasunak ezarri zituen: Batasuneko kideak zabaltzea (Balkanak, Moldavia eta Ukraina, sartzeko baldintzak betetzetik urrun dauden arren), itun berdea eta migrazio-politika. Lehentasun horiek ez dirudite AEBn edo Txinaren nagusitasuna zalantzan jarriko dutenik.

3. Adierazle makroekonomikoen analisisia

9. p

Lehen aipatutako mehatxuak eta erakunde ezberdinek duela urtebete egindako aurreikuspenak gorabehera, ekonomia uste baino hobeto erantzuten ari da, ekaitzaren aurreko barealdia dirudienan. Ondoriozta daitekeena da covid-19aren ondorengo susperraldi ekonomikoa moteltzen ari dela, mundu mailan nahiz Hego Euskal Herrian errepikatzen diren joera batzuekin batera.

Mundua

Nazioarteko hainbat erakundek antzeko egoera ekonomikoaren azteketa egin dute maila globalan. Adibidez, Nazioarteko Diru Funtsak (NDF) Munduko Ekonomiaren Aurreikuspenen Eguneratzea izeneko azken txostenean ziurtatu du banku zentralak inflazioari aurre egiteko egiten ari diren interes-politikak "jarduera ekonomikoa oztopatzen" ari direla. Era berean, inflazio horrek familien erosteko ahalmena murrizten jarraitzen du. Hala eta guztiz ere, jarduera ekonomikoa aurreko hilabeteetan espero baino erresilienteagoa izan da, batez ere zerbitzuen sektoreari esker. Izan ere, sektore horretan kontsumoa hazi egin da ekonomia aurreratuetan, eta turismoa bizkortu egin da. Ez da gauza bera gertatzen industriarekin, non jarduera moteldu egin den 2023an: ziurgabetasun geopolitikoak, produktibitatearen dezelerazioa eta interes-tasen igoeragatiko finantzaketaren garestitzea gehituta, ekoizpen-esparruko inbertsioaren murrizketa eragin dute. Inbertsioari dagokionez, kapitalaren eraketa gordina eta industria ekoizpena izugarri dira.

NDFren arabera, munduko hazkundea iazko %3,5etik %3ra jaitsiko da 2023an eta 2024an. Inflazioari dagokionez, 2022ko %8,7tik aurtengo %6,8ra eta 2024ko %5,2ra jaitsiko da. Hala ere, joera horiek desberdinak dira, eremuaren edo herrialdearen arabera. Gorabidean eta garapenean dauden ekonomiak dira (BRICS 11 blokea bertan dago) munduko hazkunde ekonomikoa gehien lagunduko diotenak, batez ere India eta Txina. Aurreratutako ekonomiei dagokienez, AEBetako ekonomiak Europakoak baino hobeto eutsiko dio. AEBko datuen sendotasunak (non lan-merkatuaren dinamismoak diru-sarrera errearen igoera eragin duen eta kontsumoa bultzatu duen) kezka pizten ari du AEBetako tipoak denbora luzeagoan altu mantentzeko aukeragatik. Hala ere, kontsumoa ez da luzaroan luzatuko, pandemian zehar familiek metatutako aurrezpena murrizten ari baita.

BPG errearen hazkundea 2023an (%)

	2023		2023
Mundua	3,0	EB	1,0
Ekon.aurreratuak	2,7	Txina	5,2
Ekon.emergenteak	4,0	India	6,1
AEB	1,8	Erusia	1,5

Iturria: Nazioarteko Diru Funtsa

Europa


10. p

Aurreko atalean adierazi dugun bezala, Europa lehia global horretatik kanpo dago, eta egungo egoeraren arabera, kontinente zaharra ahultse fase berri batean sartuta dago. Aurtengo BPGren hazkundearen aurreikuspenak beherantz zuzendu ditu Europako Batzordeak, %1etik %0,8ra, hurrenez hurren. Hori Alemaniako ekonomiaren uzkurduragatik gertatu da, baina baita bigarren seihilekoan Italiako, Irlandako eta Austriako ekonomiek erakusten dituzten datu txarrentatik ere.

Bestalde, KPIaren egoera aipatu behar da: erakundearen arabera, 2023an %6,5koa izango da (eurogunean %5,6koa). Batzordearen beraren arabera, kontsumitzaileek produktuengatik eta zerbitzuengatik ordaindu behar dituzten prezio altuek udaberriko aurreikuspenean espero zena baino gehiago ahuldu eta ahulduko dute barne-eskaria. Eta hori guztia, energiaren prezioak jaitsi egin diren arren eta lan-merkatua indartsu dagoen arren, langabezia-tasa %5,9 da eta %6,4 Eurogunean. Paolo Gentilonik, ekonomiako komisarioak, estanflazioari buruz hitz egiteari uko egiten badio ere, esan dezakegu ia ezaugarri horietako egoera baten aurrean gaudela, hau da, inflazio handiaren eta BPGren geldialdiaren aurrean.

Egungo koiunturari dagokionez, abuztuko Europako PMI* ren adierazleak, 2020ko azarotik izandako beherakadarik handiena erakusten du. Uztailaren 48,6etatik 46,7 puntutan kokatu zen (50etik behera manufaktura- edo zerbitzu-industriaren uzkurdura esan nahi du). Gainera, eskaera berriek beherakada handiena izan zuten 2020aren amaieratik.

PMI indizearen bilakaera AEBetan, Espainian, Frantzian eta Alemanian (%)



Iturria: Cincodías

*** PMI (Erosketen Kudeatzaileen Indizea) gutxi gorabeherako ideia bat ematen duen adierazlea da. Jarduera ekonomikoa hilez hil nola eboluzionatzen ari den zehazten du. Sektore bakoitzeko enpresa adierazgarriei egindako inkestak bidez egiten da eta analista gehienek ereduaren agertzen den metrika da, BPGren proiektzioak egiteko.**

Espainiar Estatua - Hego Euskal Herria

Espainiako Estatuko egoera, dirudienez, inguruko herrialdeetako baino hobea da. Alde batetik, EBko hazkundearen buruan dago. Bestetik, KPIa kontinenteko mailarik baxuenetako bat da. Hala ere, jarraian ikusiko dugun bezala, badira etorkizun ez hain lausengaria iragartzen duten adierazleak ere.

Europako Batzordeak argitaratutako BPGren aurreikuspen berriek, Estatua jarri dute hazkundearen buruan 2023an, %2,2ko igoerarekin. 2024an ekonomiak %1,9 gora egitea espero da. Adierazi behar da, nahiz eta EINEk* azken berrikuspena egin (1,3 puntu igo dira datuak), Estatuak atzetik jarraitzen duela 2019ko hazkundearekin alderatuta. Azken herrialdeetako bat izan da pandemiaren aurreko maila berreskuratzen, bertan izan baitzen beherakada handiena 2020an.

*** BPGren zenbatespenak aldatuz joan dira estatistika institutuek covid-19a bezalako bat-bateko shock batean hazkundera behar bezala neurtzeko zuten zailtasunaren ondorioz. Beraz, Estatuko BPGa uste baino lehenago iritsi zen pandemia aurreko mailara (2022ko bigarren hiruhilekoan, 2023an izan beharrean).**

Gainera, Estatuko ekonomiaren egoerari eta HEHaren egoerari zuhurtziaz begiratu beharra eragiten duten faktore negatiboak daude. Hainbat faktore negatibo agertzen dira egungo egoeran:

- Hazkundera kanpoko sektoreak bultzatu du, baina azken datuek erakusten dute esportazioek okerrera egin dutela.
- Turismo-denboraldiaren zatirik handiena amaitu da eta beraz, izan duen eragin positiboa agortzen hasi da.
- Munduko merkataritzaren eta, bereziki lehen deskribatutako Europako ingurunearen egoera ahulak, ezinbestean izango du eragina Estatuko ekonomian, bai eta Hego Euskal Herrian ere.
- Interes-tasa altuek ekonomia kaltetzen jarraituko dute, eskarian eta inbertsioan dituzten ondorio negatiboak direla eta.
- Inflazioak gora egiten jarraituko du urtea amaitu arte. Funcasen azken iragarpenaren arabera (iraila), abendurako KPIa %4,9koa izango da, eta gorakada handiak izango dira urriko (%0,9) eta abenduko (%0,5) hileko tasetan.

HEHko koiunturari dagokionez, EAErako eta Nafarroarako eskuragarri dauden azken datuek desazelerazio baten aurrean gaudela egiaztatzen dute.

EAE

2023ko lehen hiruhilekoarekin alderatuta, EAEko BPGk %0,4 egin du gora bigarren hiruhilekoan. Hau da, hamarren bat jaitsi da aurreko kontuen aurrerapenarekin alderatuta. Bigarren hiruhilekoko urte arteko hazkundera %1,5era jaitsi da, Estatuaren azpitik (+%1,8).

Hiruhileko arteko alderaketak erakusten du lehen sektoreak (-%1,3), industria osoak (-%0,6) eta manufaktura-industriak (-%0,2) behera egin dutela. Urte arteko datuak (-%0,5) ere balio negatiboak ditu bigarren sektorean, adierazi dugun dezelerazioaren erakusgarri. Ildo beretik, aipatzekoa da EAEko industria-jarduera %4,7 murriztu zela uztailan eta ondasunen esportazioak %6,8 murriztu zirela hilabete berean.

Etxeetako inbertsioak eta kontsumoak, balio positiboetan jarraitzen badute ere, moteldu egin dute hazkundea. Datuen arabera, kapital finkoaren eraketa gordina (inbertsioa) %0,6 baino ez zen hazi. Etxeetako kontsumoari dagokionez, hazkundea %1,6koa izan zen, baina EAEko sektoreko salmentak %3,0 jaitsi ziren bigarren hiruhilekoan.

Nafarroa

Nafarroako datuak EAEkoen oso antzekoak dira. Bigarren hiruhilekoaren aurrerapenaren arabera, Nafarroa %0,4 hazi zen eta urte arteko balioetan %2,1. Argitaratutako aurrerapenean adierazten dutenez, "kontsumitzaileen konfiantza hobetzen da, inbertsioa eta esportazioak hozten dira, automobilgintzaren sektoreak baldintzatuta". Hala ere, ez dago testuarekin batera doan daturik.


4. EBZ: atzeraldi ekonomikoa inflazioari aurre egiteko

Inflazioa arazo nagusia izaten ari da biztanle gehienentzat azken hilabeteetan. Azterketa Bulegotik inflazioaren zergatiak eta ondorioak aztertzen ari gara 2021eko abuztuan prezioak igotzen hasi zirenetik. Azterketa horietan adierazi dugunez, KPlaren igoera eskaintzan gertatzen den shock baten ondorioa da: erregaien eta energiaren prezioen gorakadaren, hornidura-kateetako asalduren, ingurumen-shocken, Ukrainako gerraren eta izaera oligopolistikoa duten zenbait enpresaren marjinen igoeraren ondorio (energia-sektorea eta banku-sektorea, besteak beste), hain zuzen.

Hala ere, Europako Banku Zentralak, faktore horiek prezioen igoeraren arrazoi gisa onartuta ere, bere jokabidea ez dator bat egindako irakurketarekin. EBZko presidenteak berak ere abuztuaren amaieran berriro aipatu zituen enpresak prezioen igoeraren erruduntzat: "ikusitako enpresek prezioak doitzeko aukera gehiago izateaz gain, nabarmen doitzeko aukera gehiago dituztela. Horregatik, sektore batzuetan, prezio-aldaketen maiztasuna ia bikoiztu egin da eurogunean".

Hala ere, Europako Banku Zentralak, diru-politika murriztailearekin, eskarian jarri zuen arreta, eta, horregatik, interes-tasak igotzen hasi zen behin eta berriz. Irailaren 14ko azken bileran, analista askok igoera berri bati uko egiten bazioten ere, erakundeak 0,25 puntu igo zituen tasak, 4,5 puntura iritsi arte. Halaber, euriborrak goranzko joerarekin jarraitzen du, eta dagoeneko %4,191ean dago (irailaren 18an).

Interes-tasaren eta Euriborraren eboluzioa (2022-2023)



Iturria: ELAko Azterketa Bulegoak egina EBZ eta Euribordiaritok

Interes-tasen igoera, aurreko atalean aztertu dugun bezala, ekonomia uzurtzen ari da, eta horixe da banku zentralen helburu nagusia: beste atzeraldi bat eragitea kontsumoa eta inbertsioa murriztearen kontura. Hozte horren ondorioetako bat, besteak beste, langabeziaren igoera izan beharko litzateke, enplegua orain gutxieneko mailetan baitago eurogunean. Langabezia hain txikia arazo bat da sistemarentzat, langileriari indar handiagoa ematen diolako eta indar-korrelazioa soldatapeko klasearen alde bihurtzen delako. Hori dela eta, Lagardek berak ohartarazi zuen egoera hori Jackson Hole AEBn egindako bileran: “Langileak sendago jarri ditu soldata erreralaren galerak berreskuratzeko”. Gaineratu zuenez, “gaur egun ikusten ari garenez, langileek negoziatzeko ahalmen handiagoa dutenean, inflazioa handitzeak soldata-igoera ekar dezake, egunean jartzeko, eta horrek inflazio-prozesu iraunkorra eragin dezake”.

Beraz, beste behin ere argi geratu da interes-tasen igoeraren benetako helburua. Hau da, langile klaseak bere baldintzak negoziatzeko duen boterea galtzea, soldata-igoerek bigarren txandako ondorioak eragingo dituztela aitzakiatzat hartuta. Analisi askok zalantzan jarri dute hori, iazko azaroko NDFren txosten batek adibidez. Txosten horretan adierazten zenez, “prezioen eta soldaten espiralak, gutxienez prezioen eta soldaten azelerazio iraunkor gisa definituak, zailak dira aurkitzen egungo erregistro historikoan”. Ondorioztatu dutenez, “soldata nominalen azelerazioa ez da nahitaez prezioen eta soldaten zurrunbiloa finkatzen ari den seinale gisa hartu behar”.

Esan dezekgu Europako Banku Zentralak ordezkatzan dituen interesen alde egiten duela berriro, korporazio handien alde, eta alde batera uzten du biztanleriaren gehiengoa. Hori guztia hain nabaria da ikusita ez dutela hatzik mugitu enpresa-irabaziak mugatzeko (aipatu dugun bezala, prezioen gorakadaren arrazoietako bat); baina, prest daude ekonomia hondatzeko, langile klaseak negoziatzeko ahalmen-mailarik irabazten ez duen heinean.


5. Bizitza gero eta garestiagoa

14. p

EINk argitaratutako KPIren datuek indize orokorraren beste gorakada bat izan dute azken bi hilabeteetan. Abuztuko azken datuak %2,6ra igo du tasa, aurreko hilean baino hiru hamarren gehiago. Erregaien prezioen gorakadak eragin du gorakada berri hori: gasolioak %8,6 egin du gora hilabete bakar batean, eta gasolinak, berriz, %5,7.

Azken hilabeteetako bilakaerari erreparatzen badiogu, iazko uztaillean inflazioak goia jo zuen, %10,8ra iritsita. Harrezkero, tasa orokorrak beheranzko joera izan du, baina egia da azpiko inflazioak (elaboratu gabeko elikagaiak eta produktu energetikoak kontuan hartzen ez dituenak) ez duela dinamika bera erakutsi. Grafikoan ikus dezakegu enpresek prezioetara bideratu dituztela kostuak, azpiko inflazioaren bilakaera gorakorra dela eta.

KPI orokorraren eta azpikoaren eboluzioa (%)




Iturria: EIN

Gogora dezagun KPI urte arteko adierazlea dela, eta hilabete bat aurreko urteko baliokidearekin alderatzen duela. Beraz, datu horrek esan nahi du 2023ko abuztuan tasa orokorra %2,6 igo zela iazko abuztuaren aldean. Hala ere, prezioak askoz ere gehiago igo dira 2021eko abuztutik (hilabete horretan hasi zen prezioen gorakada). Ildo horretan, 2021eko abuztuarekin alderatuta, indize orokorra %13,4 handiagoa da. Baina benetan kezkarriena, jarraian ikusiko dugun bezala, elikagaien bilakaera da, azken bi urte hauetan %25,7 hazi baitira.

Elikagaiak

ELAK askotan ohartarazi du inflazio altuak klase irakurketa argia duela, ez baitu eragin bera pertsona guztiengan. Diru-sarrera txikiagoak dituzten etxekoek unitateek proportzio handiagoa kontsumitzen dute ondasun eta zerbitzu mota horietan. Hala nola elikagaiak, alokairuak, erre-gaiak eta abar. Eta, hain zuzen ere, ondasun- eta zerbitzu-talde horiek ari dira gehien igotzen. 2023ko abuztuan elikagaien urte arteko igoera %10,5ekoa izan zen. Baina, adierazi dugun bezala, ehuneko askoz handiagoa da 2021eko abuztuarekin alderatuz gero. Aipamen berezia merezi du oliba-olioak, hilabete batean %8,7 igo baita prezioa, baina %52,5 garestitu da iaiztik, eta %72,6 duela bi urtetik. Enpresek egiten dituzten espekulazio-dinamiken beste adibide bat da. Jarraian, elikagai batzuen igoerak azaltzen dira:

Elikagaien prezioaren igoera 2021eko abuztutik (%)



Iturria: ELAko Azterketa Bulegoak eginda EInetik

Etxebizitza eta alokairua

Banku zentralen moneta-politikaren aldaketak, lehenik FED eta hilabete batzuk geroago EBZ, hipoteka-tasen igoera ekarri du, gure kasuan euriborrarena. Igoera horrek,aldi berean, ondorio garrantzitsuak izan ditu etxebizitzaren salerosketan. Espainiako erregistratzaileen elkargoaren azken datuen arabera, urteko bigarren hiruhilekoan EAEn %17,5 murriztu da, eta Nafarroan, berriz, %4,9 igo da. Hala ere, urte arteko bilakaerari erreparatuz gero, ikusten da salerosketen kopuruak behera egin duela bi lurraldeetan, %2,9 eta %4,9, hurrenez hurren. HEHn ez ezik, euro-gune osoan eragina duen fenomeno da.




%2,9 jaitsi da etxebizitzaren salerosketa EAEn eta
%4,9 Nafarroan

Hipoteka-tasak garestitu ahala, familia batzuek ez erostea erabaki dute. Izan ere, tasa-gorakaden politikak klase-ikuspuntua ere badauka, errenta gutxien duten familiei eragiten baitie gehien bat. Analistek diotenez, euriborraren igoera “finantza-gaitasun txikia duten erosle potentzialak” merkatutik kanporatzen ari da, baina, aldi berean, “bankuen baldintzei aurre egiteko kaudimena dutenak egungo etxebizitza-eskaintzaren oso gainetik daude”.

Horregatik, interes-tasen igoera eta ondorioz eskariaren murrizketa gorabehera, etxebizitzaren prezioak ez dira murriztu. EINen inkestaren arabera, HEHn goranzko joeren ondoko ondoko 10 hiruileko dira dagoeneko. Gainera, analistek adierazi dutenez, “goranzko joera horri jarraituko diote urte honetan”.

HEHko etxebizitzaren prezioen eboluzioa (%)



Iturria: ELAko Azterketa Bulegoak eginda EINetik

Alokairuaren prezioari dagokionez ere goranzko joera dago. Idealista atariaren arabera, prezioek alokairuko etxebizitzaren merkatuaren errekor berri bat adierazten dute. 2023ko abuztuko urte arteko datuak erakusten du prezioak %2,7 igo direla Nafarroan eta %6,3 EAEn. Gogora dezagun prezio horiek etengabe igotzen ari direla duela urte batzuetatik hona.


6. Soldatek eros-ahalmena galtzen jarraitzen dute

Soldaten eguneratzea ez da inflazioarekin bat etorri, eta horrek erosteko ahalmenaren galera nabarmena eragin du pandemia hasi zenetik. Komunikabideetan albiste asko daude soldatak KPlren gainetik igotzen ari direla ohartarazteko. Hala ere, soldata gehienak urte hasieran eguneratzen dira (eta konstante mantentzen dira hurrengo urteko urtarrilera arte), beraz kontuan hartu beharreko erreferentzia aurreko urteko abenduak KPIa da, %5,7koa. Ehuneko hori hartu beharko genuke kontuan hitzarmenen eguneraketarekin alderatzeko, eta ez egungo %2,6.

EAEko Lan Harremanen Kontseiluaren (LHK) datuen arabera, indarrean dauden hitzarmenen batez besteko hazkunde itundua %4,06koa izan zen, eta 2023an erregistratutakoetan, berriz, %4,67koa. Bi kasuetan, EAEn negoziatutakoek EAEn eragina duten estatukoek baino gehikuntza handiagoa izan zuten. Nafarroan, Lan eta Gizarte Ekonomia Ministerioaren datuek 4,2 puntuko soldata-aldaketa erakusten dute aurtengo urtarritetik abuztura.

Soldata eguneratze hori, neurri handi batean, Hego Euskal Herrian dagoen konfrontazio eredu sindikalak azaltzen du. ELAk beti aldarrikatu du soldata-igoerak soilik konfrontazioa eta grebak daudenean lortzen direla. Eta LHKren datuek hala erakusten dute: oso seihileko bizia izan da Negoziazio Kolektiboari dagokionez, eta akordio ugari sinatu dira, baina greba-kopuruak ere gora egin du aurreko urteetako aldi beraren aldean.

Greba kopurua urtarrila eta apirila bitartean



Iturria: Lan Harremanen Kontseilua

Datu horiek gorabehera, jende asko dago hitzarmenak luzatuta edo erorita. Zehazki, langileen %47,1. Hau da, ikusi berri ditugun soldata-igoerek ez diete eragin langileen ia erdiei.


Gainera, aldeztu aurretik ikusi dugu KPlren aurreikuspenek adierazle hori %5 inguruan kokatzen dutela urte amaierarako, eta, beraz, aurreikus daiteke etxeko unitateen erosteko ahalmenak jaisten jarraituko duela.

7. Familien aurrezkiak agortzen ari dira

Azken hilabeteetan hazkunde ekonomikoari eustea ahalbidetu duen faktoreetako bat familien aurrezkiak izan da. Pandemian egondako murrizketek eta horrek kontsumoaren murrizketan izan zituen ondorioek, familiek aurreztu egin zuten. Aurrezki hori desagertu egin da azken bi urteetan, familiek bizitzaren kostuaren igoerari aurre egin behar izan baitiote.

Hurrengo grafikoan, etxeetako aurrezki-tasak Eurogunean eta Espainiako estatuan izan duen bilakaera ikus daiteke. Bertan, aurrezki-tasa 2022an kokatu zen, pandemiaren aurreko mailetan.

Aurrezki-tasaren eboluzioa EBn eta espainiar Estatuan (%)



Iturria: ELAko Azterketa Bulegoak eginda Eurostatetik

Aurrezkiak ere klase irakurketa argia du. Diru-sarrera txikiagoak dituzten familiek kontsumorako joera marjinal handiagoa dute, eta ondasun oinarritzkoenen garestitzeak pandemian lortu zuten koltxoia agortzea eragin du. Aitzitik, errenta altuek gutxiago kontsumitzen dute errentaren proportzioan, eta inflazio handiak ez die eragin handirik izan. Are gehiago, EBZren arabera, errenta altuenek aurrezkiak handitu zituzten pandemian zehar. 2020an, %10 aberatsenak gehiegizko aurrezkiaren erdia zuen; 2022an, berriz, ia bi heren zituen bere eskuetan.

Gainera, bankuek hainbeste diru irabazten ari dira familien aurrezkiak gutxi ordaintzen dutelako (deposituak, etab.). Espainiako Bankuaren arabera, pandemian metatutako aurrezkien % 45 banku-gordailuetan daude, Europako bankuen batez bestekoaren oso azpitik.

Kontsumo pribatua BPGren %55 da; beraz, aurrezkiak agortzeak kontsumoa murriztea ekar dezake, baina, batez ere, hipotekei aurre egin ezin dieten pertsonen ez-ordainketen zurrunbiloa eragin dezake.

8. Enpresek marjinak handitzen jarraitzen dute

Enpresa handiak aberasten ari dira langile-klasearen kontura, aurreko Egoeraren Azterketan ikusi genuen bezala. 2022. urtea mozkinen errekorra izan zen, batez ere energiaren eta bankuen sektorearentzat. Baina, oro har, enpresa guztiek zabaldu zituzten beren marjinak. Ez da ahaztu behar izaera neoliberalak duten erakunde handiek, hala nola NDFk, EBZk, ELGak edo Espainiako Bankuak, adierazi dutela enpresa-mozkinek nabarmen lagundu dutela inflazioan. ELGak, joan den ekaineko txosten batean, esan zuen Espainiako Estatua zela 2021az geroztik enpresa-mozkin handienek inflazioari gehien lagundu zioten herrialde garatua.

2023ari dagokionez, zaila da irabaziei buruzko datuak aurkitzea (IBEX35eko enpresenak edo kotizatutako enpresa handienak kenduta), baina adierazle batzuek aukera ematen dute enpresak lortzen ari diren marjinen argazkia izateko. Horietako bat Espainiako Estatuko Ekonomia Gaie-tarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioak, Espainiako Bankuak eta Zerga Administrazioako Estatu Agentziak berriki sortutako Enpresa Marjinen Behatokiak (OME) eskaintzen duen enpresa-marjina da, patronalak asko kritikatu duena.

Uztailean argitaratutako lehen txostenaren datuen arabera (BEZaren atxikipenetan eta lan-etekinetan oinarrituta), 2022ko uztailetik 2023ko ekainera arteko enpresa-marjina %13,7koa izan zen. Adierazle horren arabera, energiaren sektoreak %27 inguru egin zuen gora (11.500 enpresa), eta garraioen sektoreak, berriz, %26. Elikaduraren sektoreak ere marjinak berreskuratu ditu azken hila-beteetan. Kasu horretan, salmenten gaineko marjina %12,3koa da. Gainera, Behatokiko zenbait iturriren arabera, 2023 errekorreko beste urte bat izan liteke enpresen marjinetan.


Espainiako Bankuaren Balantzeen Estatistika Zentrala ere norabide berean doa, eta adierazi du enpresa ez-finantzarioen emaitza arrunta 2023ko lehen hilabeteetan %68,1 hazi dela eta sektore energetikoena %140. Ez gara mozkinaz ari, baina emaitza arruntak enpresak izaten ari diren bilakaera positibora hurbiltzea ekar dezake. Aipatu behar da langileen batez besteko ordainsaria, iturri beraren arabera, %5,9 bakarrik hazi zela aldi berean.

2022a mozkin errekorreko urtea izan zen IBEX-35ean. Errekorraz hitz egitea anekdota hutsa da, baina aberastasunaren banaketa geroz eta desorekatuago bat bistaratzen laguntzen du. Lehen sei hilekoan enpresen mozkinak buruzko datuak %7,4 jaitsi dira, baina Arcelorren emaitza kenduz gero, mozkinak %12 handituko ziren aurreko urteko aldi berarekin alderatuta.

Baina sektore bat egoera horretatik ateratzen ari bada, banku-sektorea da. Ikusi ahal izan dugu interes-tasak igotzeko politikak milaka familia itotzen dituela hipoteken garestitzearekin. Bien bitartean, bankuek milioi askoko irabaziak izaten jarraitzen dute, urtez urte hazten ari direnak. Gainera, gora egin dute, nahiz eta bankuen gaineko zerga hain beldurgarria indarrean jarri zuten, ustez emaitzak modu kezagarrian murriztuko zutelakoan.

2022 errekorreko urtea izan bazen, 2023ko lehen seihilekoan irabaziak are handiagoak izan dira iazko aldi berekoak baino. Ibex-35eko bankuek (Unicajak izan ezik) 12.500 milioi euro baino gehiago lortu dituzte 6 hilabeteetan. Kutxabankek eta Laboral Kutxak ere iazkoak baino askoz emaitza hobekak izan dituzte.

Banku-erakunde nagusien mozkinak (2022ko eta 2023ko lehen seihilekoa)



Iturria: ELAko Azterketa Bulegoak eginda enpresen emaitza kontuetatik

Bloomberg ekonomian espezializatutako hedabidearen arabera, Espainiako banku handiek 40 handituko dute beren marjinak 2023an.

9. Enplegua gora, prekarietatea ere bai

Enpleguaren datuek joera positiboa erakusten dute. Hala ere, prekarietatea bere horretan jarraitzen du oraindik. Bigarren hiruhilekoko Biztanleria Aktiboaren Inkesta (H) eta SEPEk argitaratutako datuak bat datoz enpleguaren dinamika onean, baina egia da moderazioa egon dela azken hilabeteetan. Jarraian, datuak xehatuko ditugu, HEHn enpleguarekin gertatzen ari dena sakonago ezagutzeko.

Enplegua

Biztanleria Aktiboaren Inkestaren arabera, 2023ko bigarren hiruhilekoan enpleguak gora egin zuen Hego Euskal Herrian. Zehazki, hiruhileko artean 44.400 okupatu gehiago izan ziren, guztira 1.273.800. Hazkundera gizonetzkoetan (+18.800) eta emakumezkoetan (+25.700) gertatu zen. Oraindik sexuen arteko aldea esanguratsua izaten jarraitzen du, emakume okupatuen kopurua 605.900 izan zen, hau da, %47,6.

Datua ere positiboa izan zen pandemiaren aurreko mailarekin alderatuz gero. 2019ko bigarren hiruhilekoaren aldean, 34.900 okupatu gehiago izan ziren, 20.100 gizonetan eta 14.800 emakumeetan.

Sektorekako azterketari dagokionez, zerbitzuen sektoreko okupazioak, hiruhileko honetan ohi bezala, hazkunde handia izan zuen aurreko hiruhilekoaren aldean (+46.600 pertsona). Industrian, enpleguak 6.400 egin zuen gora. Urte arteko datuak zerbitzuen sektorean positiboak dira(+36.300) eta industrian ere gora egin du, 12.600 pertsona gehiagorekin. Hala ere, eraikuntza uzkuritu egin zen bigarren hiruhilekoan (-7.800), baita 2022ko bigarren hiruhilekoaren aldean ere, 3.900 okupatu gutxiagorekin.

Behin-behinekotasuna eta partzialtasuna

Kontratuen behin-behinekotasunari dagokionez, ikusten da azken hiruhilekoan kontratu mota hori zuten pertsonak 22.100 gehiago izan zirela; iraupen mugagabekoak, berriz, 13.700 gehiago izan ziren. Ondorioz, behin-behinekotasun-tasa %20,5era igo zen berriro. Horrek sortutako enpleguaren zati handi bat prekarioa izan zela erakusten du. Alde horretatik, emakumeek prekarietate handiagoa pairatzen dute; izan ere, aldi baterako kontratuen tasa %24,2ra igo zen, eta gizonena, berriz, %16,8ra. Bereziki aipatzekoa da sektore publikoaren behin-behinekotasun-tasa, bereziki EAErena, %49,4ra iritsi baitzen, hau da, bi pertsonatik batek aldi baterako kontratua izan zuen sektore publikoan.

Emakumeei gehien eragiten dien beste gai bat nahi gabeko lanaldi partziala da. Lau emakumetik batek baino gehiagok (%26) lanaldi partzialeko kontratua izan zuen bigarren hiruhilekoan. Gizonen artean, berriz, tasa %7koa izan zen. Hori da emakumeek lan-eremuan jasaten duten diskriminazioaren beste erakusgarri bat.

Langabezia

22. p

Bigarren hiruhilekoan, Biztanleria Aktiboaren Inkestaren arabera, 103.500 langabe egon ziren Hego Euskal Herrian, aurreko hiruhilekoan baino 22.900 gutxiago. Langabeziaren beherakada batez ere emakumeen artean gertatu zen, 17.400 langabe gutxiago erregistratu baitziren.


SEPERen datuek joera positiboa erakusten dute, uztaileko eta abuztuko langabeziak gora egin duen arren. Datuen arabera, langabezian 137.822 pertsona erregistratu ziren abuztuan: 108.658 EAEn eta 29.164 Nafarroan. Nabarmendu behar da langabezia pandemiaren aurreko mailaren azpitik egon zela abuztuan (-9.339).

EINek argitaratutako datuen arabera, HEHko langabezia-tasa orokorra %7,5era jaitsi zen (%7,1 EAEn eta %8,8 Nafarroan). Emakumeen artean, tasa %7,7koa izan zen eta gizonen artean langabezia-tasa % 7,3koa. Balio minimoetan egon arren, oraindik ere EBekoa baino handiagoa izaten jarraitzen du, uztailean %5,9ko tasa izan baitzuen.

Enpleguaren joera ona izan arren, gazteek ez dituzte oraindik emaitza on horiek nabaritzen. Gazteen langabeziari buruzko datuek gure lan-merkatuaren egiturazko arazoa erakusten dute. Azken hiruhilekoan, langabezia-tasa %26,1era igo zen HEHn. Nafarroan gazteen langabezia %29,9 izan zen, aurreko urtean baino ia 10 puntu gehiago. EAEn, egoera ia berdina izan zen: lau gaztetik bat (%24,8) langabezian zegoen.


Bi lurraldeak gazteen langabeziaren liderrak dira Europar Batasunean, jarraian ikusiko dugun bezala. Gazteen langabezia krisi-garaian nabarmentzen den arazoa da, baina egiturazkoa da, 2008ko krisiaz geroztik langabezia-tasa ez baita %20tik jaitsi.

Gizonen eta emakumeen okupazioa (hiruhilabete artekoa)




	Nekazaritza	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
Hiruhilabete artekoa	-400	+6.400	-7.800	+46.600
Urteartekoa	+1.600	+12.600	-3.900	+26.600


Behin-behinekotasuna



Partzialitatea



Langabezia



Emakumeak

7,7%


Gizonak

7,3%

Gazteak

29,9%
Nafarroa24,8%
EAE

Gazteen langabezi-tasaren eboluzioa




10. Austeritatea bueltan da arau fiskalekin

Europa egoera paradoxikoa bizitzen ari da. Europar Batasunean pisu ekonomiko handiena duten herrialdeak zailtasun handiak izaten ari dira (Alemaniak 2023an BPGren %0,4ko jaitsierarekin amaitzea espero da), eta hegoaldeko herrialdeak, PIGS deritzenak (txerriak ingelesez, Portugal, Italia, Irlanda, Grezia eta Espainia) belatzen gainerik hazten ari dira. Hala ere, datu horiek tentuz hartu behar dira; izan ere, herrialde horiek izan ziren 2020an gehien jaitsi zirenak pandemiarekin, eta, neurri handi batean, zerbitzuen sektorearen eta turismoaren bultzadagatik ari dira hazten.

Baina beste adierazle batzuei erreparatzen badiegu, hala nola kontu publikoei, argazkia beste bat da: Irlandak izan ezik, PIGSen taldeko herrialde guztiek BPGren %100etik gorako zor publikoa dute. Eta EBZk interes-tasak igotzeko duen politikak larritu baino ez du egiten egoera hori, herrialdeek interes gehiago ordaindu beharko baitituzte zorra itzultzeagatik.

Zor publikoaren ratioa BPGrekiko EBn 2023ko lehen hiruhilekoan (%)



Iturria: ELAko Azterketa Bulegoak eginda Eurostatetik

Europako gobernantza ekonomikoaren esparruaren erreformari buruzko 47. zenbakian (Egonkortasun eta Hazkunderako Ituna) aztertu genuen bezala, BPGren %60tik gorako ratioa duten herrialdeek diziplina fiskalera itzuli beharko dute 2024rako, batez ere %90 gainditzen dutenek. Hau da, gastu-arau bat ezarriko zaie eta ezin izango dute maila horretatik gora gastatu zorra nabarmen murriztu arte. Hori guztia Europako Batzordeak eta Kontseilu Europarrak zorrotz gainbegiratuta.

Kontuan hartu beharreko adierazlea defizit publikoa izango da. Horrek ezingo du %3 gainditu. Gainditzen duten herrialdeek %0,5eko doikuntza izango dute, %3tik jaitea lortu arte. Jokoaren arau horiekin, Espainiako Estatuko defizit publikoa %4,1 ingurukoa izatea aurreikusten da 2023an (Funcasen datuak), eta Nadia Calviñoren ministerioak konpromisoa hartu du 2024an %3ra jaiteko.

Une honetan, arau fiskalak behin betiko aldatzeko azken urratsak ematen ari dira eta bertan erabakiko da zein herrialdek duten pisu handiena, iparraldeko belatzek (aurreko arau fiskalekin jarraitzea bilatzen dute) edo hegoaldeko herrialdeek (malgutasun handiagoa bilatzen dute).

Hau da, hurrengo urteetako aurrekontuetan gastua mugatuko zaio, eta gauza bera gertatuko da EAEko eta Nafarroako aurrekontuetan. Datozen bi hilabeteetan ikusi ahal izango dugu, bi gobernuek 2024rako aurrekontuen proiektuak aurkezten dituztenean.

Egoera honetan, zerbitzu publikoak (osasuna, hezkuntza, etxebizitza...) eta gizarte-prestazioak higatu egin dira. Beraz, 2024tik aurrera, gastuaren kontrolak ezarritako mugak ikusita, arlo publikoaren aurkako beste erasoaldi baten aurrean egon genezake.

PUNTAKO GAIA

26. p


Pobrezia ez da desagertzen

Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak 2022ko Gizarte Beharren Inkesta (GBI) argitaratu berri du, Pobreziaren eta Gizarte Desparekotasunei buruzko Inkestari (PGDI) lotuta. Oraingo honetan, Sailak ez du PGDIren txosten osoa argitaratu. Aipatu behar da, txostenak askoz informazio gehiago eta lortutako datuen azalpena ematen duela.

Eusko Jaurlaritzak errealitatearen bertsio partziala eta interesatua eman du, adierazle batzuen bilakaera kezagarria erakusten duten datuak ezkutatzen saiatuz. Eusko Jaurlaritzak egiten duen Inkestaren alde interesgarrienetako bat, beti ELAk egindako azterketa-puntu nagusia izan dena, ongizaterik ezeko arrisku-egoera deritzona modu homogeneoan neurtzen duena da. Horrela ulertzen dira ohiko gastuei aurre egiteko baliabide ekonomiko nahikorik ez dutenak, gastu horiek beharrezkotzat jotzen baitira gizarte jakin batean espero diren gutxieneko ongizate- eta eroso-tasun-mailei eusteko. Praktikan, gizarte horren bizimoduan, ohituretan eta jarduera arruntetan parte hartzeko aukera ematen dutenak dira, baldintza minimoetan bada ere “.

Bada, Eusko Jaurlaritzaren Inkestak adierazten du 2022an ongizaterik ezaren tasa biztanleria-ren %22,3ra igo dela (482.720 pertsona egoera horretan egongo lirateke), 2020ko %19,6aren aldean. Erantsitako taulan ikus daitekeenez, 2008tik izandako mailarik altuenean gaude (2018ko datuekin berdinduta). 2008tik, pobrezia-tasa ia 6 puntu igo da, eta 2022an, EAEn, 2008an baino 130.000 pertsona gehiago zeuden egoera horretan.

EAEn ongizaterik ezeko egoeran dauden pertsonen kopurua



Iturria: ELAko Azterketa bulegoak eginda GBItik


Ongizate eza hainbat irizpideren arabera da. Irizpide horiek erakusten dute pertsonak ezin dituztela beren oinarritzko premiak modu duinean bete. Elikadura-arazo larriak izan zituzten 40.000 pertsona egon ziren 2022an (2020ko datu ia bera), eta neguan tenperatura egokia mantentzeko arazoak izan zituzten pertsonen ehunekoa %18,4 igo zen. 178.000 pertsonak pairatu zuten energia-pobrezia.

Txostenean ikusi dugu familiek aurre egin ahal izan diotela bizitzaren kostuaren garestitzeari aurrezkiaren bidez, eta inkestak errealitate hori erakusten duten datuak ematen ditu. Ustekabeko gastuei aurre egiteko gaitasunik ez duten pertsonen kopurua %18 igo da 2020tik 2022ra. Hau da, EAEko bost pertsonatik batek ez du ustekabeko gastuei aurre egiteko adina aurreztu. Aurrezkien balioak euskal gizarte osoan %24 egin du behera aldi berean, eta horrek eragin du pertsonen %20 aurrezkirik gabe egotea.

Inkestak azken urteko Euriborraren ondorioak islatzen ez dituen arren, 2022an 90.000 pertsona inguruk ez zituzten alokairuak, kredituak, hipotekak edo ordainagiriak ordaindu. Horrek pentsarazten du kopuru horrek nabarmen egin duela gora azken urtean, eta datozen hilabeteetan ere hala jarraituko duela.

Diru-sarrerei dagokienez, datuek erakusten dute pertsona pobreenak izan direla hileko diru-sarrerak gehien murriztu dituztenak. Hurrengo grafikoan ikus daitekeenez, 2008 eta 2022 urteen artean biztanleriaren dezil guztien diru-sarrerak murriztu badira ere, errenta baxuenak izan dira gehien galdu dutenak.

Batez besteko diru-sarrera baliokideen jaitsiera biztanle-dezimako 2008 eta 2022 artean (%)



Iturria: ELAko Azterketa bulegoak eginda GBItik

Azkenik, azpimarratu behar da Inkestak berak erakusten duela Eusko Jaurlaritzak aplikatzen dituen gutxieneko diru-sarrerak eta bestelako gizarte-prestazioak bermatzeko politikak ez direla nahikoak. Aurretiko pobrezia-egoeran dauden pertsonen %54,7k pobrezian jarraitzen du gizarte-prestazioen sistemaren estalduraren ondoren. Soilik pertsonen %45,3k uzten dio "pobre" izateari, %24,5ek ez du inolako prestazio ekonomikorik, eta gainerako %30,2k prestazioen bat jasotzen du, baina pobrezia-egoeran jarraitzen du. Horregatik, pertsonen gizarte-prestazioak eskuratzen lagundu behar zaie, bai eta DSBEaren zenbatekoa nabarmen hobetu ere, ELAk eskatzen duen bezala. Horrela planteatzen dugu Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren pobrezia- eta gizarte-bazterkeriaren aurkako ILPan.

